

## **GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA ONLINE ARTE-IKASTAROA** ***Zer ulertzen dugu eskultura garaikidetzat?***

### **EGITURA ETA MATERIALAK**

Ikastaroa honela dago egituratuta:

- Ongietorri-bideoa
- Aurkezpen-bideoa
- Gaikako 4 modulu, bakoitza honako hauek osatua:
  - 4 bideo-klase
  - Material gehigarriak, bibliografia, etab.
  - Testa (hautazkoa)
- Ondorioen bideoa eta agurtzeko bideoa
- Inkesta

### **SARRERA**

Duela mende eta erditik hona eskulturak, pinturak baino gehiago, hain aldaketa erradikalak jasan dituen (bai teknikoak, bai formalak zein kontzeptualak), esan liteke ia desagertu egin dela garai batean existitzen eta ezagutzen zen moduan.

Gaur egun, eskultura bat modelo batetik abiatuta egindako objektu trinkoa izan daiteke, baina baita instalazio edo espazio bat, arkitektura-pieza bat, paisaia bat edota artistaren gorputza bera ere.

Halaber, eskultura garaikidearen nozioa eta mugak neurri gabe handitzeak beste ondorio garrantzitsu bat izan du: publikoak obren aurrean bizitako esperientzia erabat aldatu du, pasibo izatetik aktibo izatera igaro baita. Gainera, eskulturaren espazioa jada ez da soilik estetikatzen jotzen, existentzialistatzen baizik. Instalazio baten aurrean jartzerakoan edo haren barruan sartzerakoan, gure pertzepzio fisiko eta emozioekin erreakzionatzen dugu. Nork ez du sentitu kezka, are beldurra ere, zer aurkitu, ukitu, entzun edo arnastuko dugun ez dakigun espazio ezezagunetan?

Eskultore garaikideek hainbeste bide igaro dituzte, hain anitzak eta kontraesankorrak diren bideak igaro ere, ezen ezinezkoa baita historia horren mapa osoa planteatzea. Dena den, eskultura modernoaren eta garaikidearen eraldaketaren etapa nagusiak zeintzuk izan diren aztertuko dugu ibilbide kronologiko bat eginez —XIX. mendearen amaieratik gaur egunera arte—, baita ibilbide tematiko baten bidez ere, non idulkiaren desagertze esanguratsua azpimarratuko dugun —erabilgarria izateari noiz eta zergatik utzi zion aztertuko dugu—. Halaber, materialen iraultza sakon eta atzerazina jorratuko dugu, egungo eskulturak, aurrekari historikorik gabe, hartu duen dimentsio berria baloratu.

Brigitte Leal

## PROGRAMA

### I. modulua. *Aldaketaren hastapenak*

XIX. mendeko azken hamarkadaren eta XX. mendeko lehen hamarkadaren artean, lengoia eta sortzeko modu berriak jaio ziren eskulturagintzan, tradizioan nahiz hausturan oinarrituak. Materialekiko —igeltsua, eskaiola, harria, marmola, brontzea— eta eskulturaren teknika tradizionalakiko —zizelkatzea, hustea eta galdatzea— errespetua bazuen ere, esan daiteke Auguste Rodin (1840–1917) abiapuntu erabakigarria izan zela eskultura mota berri bat —figuratiboa izan arren estatuagintza bezalako eredu akademikoetatik oso bestelakoa— eraikitzerakoan.

Parisen bizi ziren nazioarteko artisten belaunaldi berriarentzat, arte primitiboaren eta historiaurreko artearen aurkikuntzak ordezkatu zuen iraganaren pisua. Aurkikuntza arkeologiko handiek eta Europan Afrikako, Amerikako eta Asiako objektuen bildumak jasotzen zituzten etnografia-museoak ireki izanak ikuspegi berriak ekarri zizkioten eskulturari. Esate baterako, Pablo Picasso (1881–1973) gazteak, Parisko Trokadero museoan zela Erdi Aroko eskultura frantsesa ikusten, Afrikako eta Ozeaniako maskara pila "lotan" zeuzkaten aretoak aurkitu zituen, kasualitatez, 1907an.

#### 1. bideoa. Kubismoaren hasiera I. Afrikako eredu

1912an, Picassok Boli Kostako wobé herriko maskara afrikar bat aurkitu zuen, ustekabean, Marseillan —garai hartan oraindik portu kolonial garrantzitsua zen hiria—. Ez zen mukulu biribilekoa, irekia baizik, etena, planotan eraikia, Mendebaldeko imitazio ilusionista ez bezala. Maskara horrek eragin handia izan zuen Picassoren, eta esperimendu piktoriko kubistak egiten hasi zen bolumena eta forma abiapuntu hartuta. Era berean, artistak bere hiru dimentsiotako lehen objektuak sortu zituen ensemblajearen bidez (hau da, objektu "ez-artistikoak" elkarren ondoan jarriz).

#### 2. bideoa. Kubismoaren hasiera II. Eskultura tradizioaren, brikolajearen eta objektuaren artean

Brikolajerako zeukan trebetasunarekin lotuta, Picassok aurrekaririk gabeko eskultura motak asmatu zituen: pinturaren eta eskulturaren arteko objektuak, eraikuntzak edo erliebe-koadroak, denak ere material apalak eta ustekabeak erabilita eginak, hala nola latorri zein egur zatiak, kaxa-estalkiak... normalean bota egingo lirartekeen gauza merkeak, beren eginkizunetik aldenduak, berrerabiliak, alferrikako objektu edo objektu artistiko eta poetiko bilakatuak. 1914an, aitzindaria izan zen, halaber, eskultura baten barruan benetako objektu bat sartu baitzuen *Absenta-edalontzia* obran.

#### 3. bideoa. Objektua eskulturaren ordezkotza

Marcel Duchamp (1887–1968) izan zen objektua eskulturaren ordezkotza erabiltzearen benetako asmatzailea. *Readymade* direlakoak (hau da, objektu arruntak) 1913an agertu ziren lehenengoz haren obran, eta 1965era arte luzatu zen ziklo bati eman zioten hasiera. *Bizikleta-gurpila* (1913) lanean kontzeptu asko sartzen dira: eskultura tradizionalaren desakralizazioa (ezarritako ordenaren aurrean obra "anartistikoa" sortzearen ideian oinarrituta), obraren mugimendua ikusleak eskultura

baten aurrean izan ohi duen mugimenduarekin kontrajarrita, gurpil baten gardentasuna mukulu biribil tradizionalaren aurrean, eta mundu artistiko berri baten sorrera iragartzen zuen lur-globoaren antzeko forma baten sinboloa. 1917an Rodin hil zen, eta urte horretan bertan Duchampek beste *readymade* bat aurkeztu zuen (*Iturria*) New Yorkeko galeria batean, eta eskandalu izugarria eragin zuen, pixatoki bat baitzen.

#### **4. bideoa. Objektudun instalazioak. Mona Hatoumen *Etxea***

Eskulturan, objektuen presentzia surrealismoarekin lotu ohi da. Surrealistek objektuaren sugestio-gaitasun aparta atzematen jakin zuten beren bodegoi bitxi eta poetikoetan. Testuinguru horretan, aipatzekoak dira Joan Miróren (1893–1983) objektuak, pinturaren eta eskulturaren “erailketaren” ideia etengabearekin bat egiten baitute. Gaur egun, artista garaikide askok nahiago dute dimentsio historikoa eta politikoa azpimarratzea. Adibidez, zer planteatzen du Mona Hatoumek (1952) Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako *Gure etxea* (1999) obrarekin?

## **II. modulua. *Idulkitik jaisten***

Idulkia estatuagintza akademikoen ezinbesteko zatia zen. Pinturan markoa bezala, haren lehen funtzioa obra babestea eta obrari egonkortasuna ematea zen. Horrez gain, nabarmendu, testuingurutik kanpo jarri eta handiagotu egiten zuen eskultura.

#### **1. bideoa. Eraikuntza abstraktuak**

1920ko hamarkadan, konstruktibista errusiarrek izan ziren eskulturetan idulkia alde batera utzi zuten lehenak. Arlo horretan, Vladimir Tatlin (1885–1953) artistaren kontraerliebe abstraktuak nabarmentzen dira.

#### **2. bideoa. Eskultura utopia politiko gisa**

Handik gutxira, Alexander Rodchenko (1891–1956), Katarzyna Kobro (1898–1951) eta Naum Gabo (1890–1977) artistek zintzilikatu egin zituzten beren eskulturak. Obrak aurkezteko prozesu berri horiek iraultza-testuinguru politikoaren baitan agertu ziren, Errusiako 1917ko Iraultzaren baitan, alegia.

#### **3. bideoa. Calderren mugikorak**

Hogeita hamarreko hamarkadan, Alexander Calder (1898–1976) ingeniari mekaniko estatubatuarrak dinamika berri bat sartu zuen eskulturan: forma arinak, esekiak eta aireak mugituak.

#### **4. bideoa. Arte minimalista eta paisaiaren artea**

Hirurogeiko hamarkadan, eskulturak beste iraultza erradikal bat bizi izan zuen, eta atzean utzi zituen formula moderno historikoak. Artista minimalistek forma neutroak, modulatuak eta errepikakorrak dituzten lanak egiten zituzten material industrialak erabiliz. Arte mota hori hotza zen, edozein emoziotik urrundua, eta kapitalismoaren gorakadarekin erabat lotua; haren aurrean, Europako sortzaileek —adibidez, Italiako Arte Povera (arte pobrea) mugimenduaren inguruan bildu zirenek edo Land Art estiloko artistek— material galkorrekin edota paisaian integratuta sortzen zituzten beren eskulturak.

### **III. modulua. *Materialen erabileraren (bir)bilakaera***

Bigarren Mundu Gerraren ondorengo urteetan, artista askok alde batera utzita zituzten jada material tradizionalak, uste baitzuten forma piktorikoak eta eskultorikoak errepikatzea itogarria zela eta garai berrietako balioekin zerikusirik ez zuen geldialdia islatzen zuela. Ikerketa ugaritan, espazioa berezko entitate eskultorikotzat hartzen hasi zen.

#### **1. bideoa. “Inmaterialak”. Hutsunea espazio eta garrantzi gisa**

1946an Argentinan argitaratutako *Manifestu zurian*, Lucio Fontanak (1899–1968) “arte espazialista” delakoaren etorrera iragarri zuen. Denboraren eta espazioaren batasunean oinarrituta, sorkuntza-mota horrek forma hartzen zuen, adibidez, neoizko hodiekin definitutako giro espazialean. Fontanak Yves Klein (1928–1962) artista frantsesarekin partekatzen zuen ideia kosmikoz, mistikoz eta are esoterikoz betetako artearen ideala. Bere obrak sortzerakoan, Kleinek garai batean gorputz guztien osagaitzat hartzen ziren lau elementuetatik (lurra, ura, airea eta sua) hiru erabiltzen zituen.

#### **2. bideoa. Obra murgiltzailea. Fujiko Nakayaren *Laino eskultura***

Gaur egun, artista mordoak egiten du lan elementu immaterialekin. Fujiko Nakayaren *Laino eskultura 08025 zk.* (1998), Guggenheim Bilbao Museoko urmaelean kokatua, itsasadarraren ondoan, ura airean zabaltzea errazten duen instalazioa da.

Obra murgiltzailea denez, publikoa mugarik gabe “barnera” daiteke bertan, eta haren poetikak Turnerren margolan liluragarriak ekartzen dizkigu gogora.

#### **3. bideoa. Material industrialak**

Altzairuzko eskulturen maisua den Richard Serraren (1938) ustez, materialak bere forma inposatzen du: “Ezin duzu eskultura bera egin zurez, altzairuz, kristalez edo igeltsuz. Artista naizen heinean, ondo ireki behar ditut begiak, materialek zer-nolako forma eskatzen didaten antzemateko eta forma hori neure egiteko, neure asmakizun bihur dadin”.

#### **4. bideoa. Hondakinak**

Ohiz kanpoko materialak eta oso ortodoxoak ez diren teknikak erabiltzea kubismoak ezarritako konbentzioen ondorioa da. Manufakturatutako objektu arruntak edertasun modernoaren darian obra bihurtzea surrealismotik dator. Hala ere, gaur egun, mendebaldeko kulturetatik ez datozen artistek, hala nola El Anatsui, beren ikerketa propioa proposatzen dute hondakin-materialak berrerabiltzeko prozesuen inguruan.

### **IV. modulua. *Zer ulertzen dugu gaur egun eskultura garaikidetzat?***

Museo guztiek dauzkate gordetzen dituzten obren inbentarioak. XX. mendearen aurretik, erraza zen eskulturak identifikatzea, mukulu biribilekoak izaten baitzen, material tradizionalekin eginak. Baina zer jotzen dugu gaur egun eskulturatzat?

**1. bideoa.** Instalazioak sorkuntza iraunkor gisa. Robert Filliou, *Musika telepatikoa*  
Robert Filliou (1926–1987), Fluxus mugimenduko artista eta poeta, komunikatzeko modu berriak sortzen ahalegintzen zen bere instalazioen bidez. Aire misteriotsuko *Musika telepatikoa* (1976–78) instalazioak atrilen artean ibiltzera gonbidatzen ditu ikusleak, baita kartetan idatzitako oharrak irakurri eta interpretatzera ere.

**2. bideoa.** Objektu-instalazioak espazio existentzial moduan. Yayoi Kusama  
Era askotako objektuak artelanen parte bihurtzen dira. Denak balio du! Esate baterako, sorkuntza batzuetan, Yayoi Kusama artista japoniarrak gauza merkeak erabiltzen ditu (plastikozkoak); eta, beste batzuetan, *Infinituaren isla-gela* (2020) lanean, adibidez, led argiak baliatzen ditu, eta ikuslea “harrapatzea” lortzen du beti.

**3. bideoa.** Obra iragankorrak. Jana Sterbak, *Vanitas. Albino anorexiko batentzako haragizko soinekoa*  
Eskultura berrien kontserbazioa dela-eta, arte garaikideko museoetan erabat aldatu dira horiek babesteko eta jendaurrean aurkezteko prozesuak. Gaur egun, berez etnografia, natura edo natur zientzia arloko museoetan egon ohi diren objektuak gordetzen dituzte. Adibidez, Jana Sterbaken *Vanitas. Albino anorexiko batentzako haragizko soinekoa* (1989, 2 ale, Centre Pompidou eta Minneapolis Art Center) artelana interes handiko eskultura da, esanahi historiko eta sozial handia baitu. Izenburu bikoitzak aipagai hartzen ditu, alde batetik, *Vanitas* direlakoak eta, bestetik, anorexia, batez ere mendebaldeko emakume gazteen artean modu kezkagarrian zabaldu den nahasmendu psikologikoa.

**4. bideoa.** Eskultura giza sentipenen unibertso gisa: Cristina Iglesias, *Hondalea*  
Eskultura garaikidea museoetako hormetatik haratago joan daiteke, paisaiarekin eta naturarekin nahasteraino, mugak zabaltzeko eta emozio berriak bilatzeko. Azken urteetako obrarik zirraragarrienetako bat, neurri batean bere aparteko tamainarengatik, Cristina Iglesiasen *Hondalea* (2021) izan daiteke, Donostiako Santa Klara uharteko Itsasargiko etxearen barruan dagoena.